

2024 | EKINTZEN MEMORIA




Iraurgi Berritzeneko lan eredua

Eskualdearen eraldaketa sozioekonomikoa bultzatzea helburu izanik, gure lan eredua **Lankidetzazko Gobernantzan** oinarritzen da, **eragile publiko eta pribatuen** arteko elkarlana sustatuz eta lurraldeko **eremu desberdinetako ordezkarien parte-hartzea biltzen** duen espazioa osatuz.

Bertan, **ikuspegi partekatu batetik** abiatuta, jarduera **estrategikoak diseinatzen** eta **garatzen** dira, eskualdearen **etorkizuneko erronkei modu bateratuan** erantzuteko.





Edukia

01

2024ko datu azpimarragarrienak

02

Helburu estrategikoak eta lorpen nagusiak

03

2030 Agendarekin lerrokatzea

04

Kudeaketa planeko lan lerro eta proiektuak

2024ko datu azpimarragarrienak

1.1

Arloetako datu
azpimarragarrienak

1.2

Komunikazioa datuetan



Arloetako datu azpimarragarrienak



TOKIKO GARAPENA

48

22-27 Eskualdeko Hausnarketa Estrategikotik lantzen ari garen ekintzak

3

Trantsizio Ekologikoaren inguruan landutako proiektuak

1

Erakunde publikoetan eraldaketa digitala bultzatzeko proiektua



ENPRESA

21


Enpresei eskeinitako jardunaldiak

41

Landutako lehiakortasun proiektu berriak

114

Kudeatutako diru laguntza kopurua



HEZKUNTZA

4

Zeharkako elkarlan proiektu ikastetxeetako kurrikulumean txertatuta

+400

Ikasletik gora proiektuen onuradun

+70

Interakzio ikasle eta eskualdeko eragile desberdinen artean



ENPLEGUA

1.725

Enplegu eta Orientazio zentruetatik pasatako erabiltzaileak

220

Guztira lan munduratutako pertsona kopurua

17

Eragile sozial Inklusio Sarean



EKINTZAILETZA

104

Zerbitzutik pasatako ekintzaileak

62

Landutako egitasmo kopurua

29

Eskualdean sortutako enpresak



TURISMO

19.815

Artatutako turista kopurua Loiolako Turismo Bulegoan

4

Proiektu turistikoen artikulazioa

11

Enpresa partehartzaile Lehiakortasun Turistikoko programetan



MERKATARITZA

9

Digitalizazio eta kudeaketa eremuetako tailer eskainiak

2

Merkataritza suspertzeko kanpaina merkatarik elkarrekin elkarlanean

7

Modu aktiboan landutako eskualdatzeak

Gure kanaletan egindako ahalegina eta inpaktua

WEB ORRIA

152 Berri publikatu dira

7.600 Irakurle izan dituzte

EMAIL KANPAINAK

308 Kanpaina egin dira


1.184 Harpidedun ditugu

SARE SOZIALAK

264 Post idatzi dira

2.961 Jarraitzaile ditugu

Komunikabideetan presentzia eta argitalpenak



Udal aldizkarietan argitalpenak



HAZILAN + PROIEKTUA
PERTSONA KUALIFIKATUEN LANERATZEA
ERRAZTEKO IBILBIDEA

"Hay personas que igual llevan tiempo desempleadas o trabajando en otro sector que no es el propio, y el poder realizar prácticas les motiva y les activa en el proceso de búsqueda de empleo".

Lan esperientzia antzeko lanpostuan, Niekuntzak jekitea, bidaltzerik gertatzena, ibilgailu propioa, mobilizazioa... lan eskaintzetan, eskaintzen zuzendakariak izan ohi da, eta horietan ez beti erraza. Lanbide Heziketako goi mailako edo unibertsitateko ikasketak dituzten eta lan bila dabiltzanei zuzenduta dago Irurgi Berrirenekin lantzen duen Hazilan + proiektua.

Beriki ekin dio Irurgi Berrirenekin Hazilan + proiektuaren aurtenko edizioari. Adin ezberdinetako hamar lagunek hartuko dute parte sailetan. Herberria da lana lortzeko bidea erraztea. "Profil ezberdinak ditugu: marketin, enpresa edota zuzendakariak egin dituztenak, besteak beste", dio proiektuaren arduradun Sandra Hernandezek.

"Coaching tekniken bidez, laneratzeko behar diren gaitasunak lantzen ditugu lehenengo, modu teorikoa eta las salbatzen. Gero, lan orientatutako inguruko 30 orduko moduluak lantzen dute partaideak. Lan orientazioa jasotzen dute taldean zehin indibidualki, eta azkenik, 200 orduko praktikak burutzen dituzte eskualdeko enpresa batean. Aholkari gisa ematen diogu".

Irurgi Berrirenekin jerratu duen enpresa sarriari esker, garapen eta berrikuntza agentziaren eta bultzako enpresen arteko harremana eragotzi eta sendoa da, eta leku inguru hori lagungarria da proiektua garatzeko, bereziki enpresa-

lan prestazioen jerratu ahal izateko, lan esperientzia herberizagatuz. "Kursuak saloietan, curriculumak lantzen ditugu, eta galdetzen diegu zer motak eta ze enpresetan inbertitzen zaien praktikak egitea. Elkarrekin adosten ditugu, eta praktikak euren nahi duten tokian eskaintzen saiatzen gara".

Praktikekin "esperientzia erreala" lantzen dute. "Batzuk agian denbora daramate langabezia, edota ez dute denbora behar teknika baten lanean. Oribian, praktikak egiteki motibatu eta aktibatu ere egiten du lan bila dabilen pertsona".

Hazilan + programa 2015ean hasi zen eta Fernandez bultzaketa oso onak da. "Inde askik hartu du parte edonon edertzen eta la denak lanean daude".

Hazilan + programaren parte hartzeak atera arteko indarrez duen Irurgi Berrirenekin, eta baita lurraldeko beste garapen agentziak ere. Batzuen arabera, interesa dugu beste udalari laguntza bideratzeko aukeri dagu.

Komunikazioa



UROLA ERDIKO INDUSTRIA: ENPRESEN ERRONAK

La dificultad de contratar personal cualificado, la incertidumbre global, o resolver los retos que supone la transición social, digital y ecológica son las principales dificultades con las que se encuentra nuestro tejido industrial.

Según el análisis realizado por Irurgi Berriren, en 2023, el 39% de las empresas aumentaron su facturación un 20%, por el aumento de la actividad y el incremento de los precios. Por el contrario, un 32% vio reducida su facturación debido principalmente al "adelgazamiento de las agrupaciones de clientes" y el "aumento de costes".

Salmentak handitara, bezero eta merkatu berriak bilatu, eta pertsona kualifikatuak eta talentua erakartzaren beharra. Horietatik dira Urola Erdiko enpresen kezka nagusiak, Irurgi Berrirenekin industriaren egungo egoeraren inguruan egindako azterketaren arabera. Borne antolatuta ere lagun izan da enpresentzat, eta prestakuntza eta enpresa berriak lantzen ibiltzen zuten, digitalizazioarekin batera, bereziki, borne prozesuen eraginkortasun eta datuen geroztasunari dagokionez. Transizio ekologikoen artean, hondakinen kudeaketa eta energia berritagarriak lantzeko asmoa nabarmendu dute.

Irurgi Berrirenekin 14 enpresa zuzendutako galdetutik jasotako ondorioak dira. Parte hartu duten enpresen ingurukoak lantzen duen enpleguaren %88 ondukatzen dute.

FAKTURAZIOA

2023an, enpresen %39an fakturazioa %20 igo da. Arloaren artean daude, be-

zenen aktibitatea igoz, edota maila apalagun, inguruko unitate berri bat martxan jartzea. Hala ere, prezioen igoerak ere eragina izan du fakturazioan.


Aitzitik, enpresen %32ak fakturazioa jaitsi egin du. Nagusiki, %41,66aren iraila, "bezeroen onarpenetara gelditzea eta moteltzea" eman delako. Bigarren urratsak kontsumo igoera eta martxan murrizketak aipatu dituzte.

2024an, enpresen %46ak fakturazioa handitzea espero du.

Enpleguari dagokionez, enpresen %25ak lan taldea handitzea aurreikusten du, eta bakarra da murrizketak planteatzen duena. Gainerakoen atzina, mantentzea da. Oro har, gudelegia erantzen duten enpresen artean, 2023an zehar, %50 industria lanpostu berri sortzea aurreikusten da, baina ere, erlojupenak, berrikuntza, garapen eta berrikuntzarako, eta salmentetarako. Eskualdeak atxekatu aplikatutazten diren zerbitzuaren artean kudeaketa, komunikazioa eta zerbitzu digitalak agertzen dira.

Urola 2024

Erakunde desberdinek egindako mentzioak sare sozialetan



Helburu estrategikoak eta lorpen nagusiak

2024ko memoria


2.1	2.2	2.3	2.4
Tokiko Garapena	Enpresa Arloa	Hezkuntza Arloa	Enplegua eta Prestakuntza Arloa
2.5	2.6	2.7	
Ekintzailetza Arloa	Turismo Arloa	Merkataritza Arloa	

Tokiko Garapena

2022-2027 Hausnarketa Estrategikoan baitan 2024an gauzatutako ekimen aipagarri batzuk hauek dira:

- **Eskualde izaeraren lanketa**, eskualdearen nortasun eta kohesioa indartzeko.
- **Mugikortasun hobea**, eskualdeko udalerrien eta hiriburuen arteko garraio publikoaren bidezko loturak hobetzeko aukeren azterketaren bidez.

Hausnarketa estrategikoa



Trantsizio ekologikoa

3

Ekimen

Eskualdeko Energia eta Klima mahaitik Trantsizio Ekologikoaren inguruan landutako proiektuek tokiko jasangarritasuna bultzatzea dute helburu

Trantsizio digitala

1

Ekimen

Maila anitzeko erakunde publiko desberdinen artean, eraldaketa digitala bultzatzeko datuen gobernantzaaren inguruko proiektuaren definizioa eta exekuzioa abian

TOKIKO GARAËN ARLOKO ARGAZKIAK



Enpresa Arloa

Enpresak **lehiakortasun jasangarri** baten bidean, 3 trantsizioen eremuetan proiektu eraldatzaileak gauzatu dituzte, IBren **irismena handituz eskualdeko %66 enpresetara**.

Eragileek proiektu eta zerbitzuekiko egindako batazbesteko **balorazioa 8,9** koa izan da.

Guztira **88** enpresek parte hartu dute.

Lehiakortasun proiektuak

41

Proiektu berri

5

Digitalizazio proiektu

9

Ekonomi Zirkularra eta Energia Efizientziaren proiektu

6

Pertsonen Kudeaketa eta Lanaren zentzua

13

Hazinnova proiektu

8

BeTEK - Berrikuntza Teknologikoko proiektu

Kapazitazio jardunaldiak

21

Kapazitazio jardunaldi

15

Partehartzaile Pertsona Arduradunen Taldean

23

Partehartzaile IKT Arduradunen Taldean

17

Partehartzaile Ekoizpen Arduradunen Taldean

Kudeatutako diru laguntzak

114

Kudeatutako laguntzak

40

Enpresa lagundutakoak

1,8M

Euro eskatutako proiektuen zenbatekoa



Hezkuntza Arloa

Eskualdeko erronken baitan sortzen diren beharrei erantzutera begirako proiektuen sendotzea: **Gerolan, Elkarrekin Eraikitzen, ZTIM Urola Erdian eta Izan Ekintzaile.**

IKASIZ gai zehatzen inguruko **Kapazitazio eta sentsibilizazio dinamikak 5 ikastetxeetako zuzendaritzekin.** Aurtengoan, **“Komunikazio estrategiak ikastetxeetan”** landu da.

Elkarlan proiektuak

5

Ikastetxe

4

Zeharkako lankidetza
proiektu kurrikulumean
txertatuta

5

Ikasiz sentzibilizazio eta
kapazitazio proiektu

Parte Hartzea

+50

Irakasle

+400

Ikasle

+70

Interakzio ikasle eta
eskualdeko eragileen
artean

HEZKUNTZA ARLOKO ARGAZKIAK



Enplegua eta Prestakuntza Arloa

Enpresekin eta pertsonekin harreman pertsonalizatua eta elkarlana indartu da, proiektu berrien bidez laneratutako pertsona kopurua handituz, batez ere, gazteak eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak.

Industria Enplegu Aztarnategia proiektuaren bidez, eskualdeko enpresek beharko dituzten pertsonen perfilak, eta **Talentuaren kudeaketa** eskualde mailan garatzeko lerroak identifikatu dira. Enplegu Zerbitzuaren batazbesteko balorazioa **8,76** izan da.

Enplegu eta Orientazio zentrua

1.725 Erabiltzaile Enplegu eta Orientazio zentruan

349 Lan eskaintza kudeatuta enplegu zentroan

140 Pertsona laneratuta IB bitartez

Lan munduratze programak

62 Partehartzaile lan munduratze programetan

40 Laneratutako pertsona kopurua

28 Enpresa partehartzaile KAP programan

23 KAP eskaera gure bitartez itxita

Enplegu inklusiboa

17 Eragile Inklusio Sarean

5 Ikastaro berri langabetu zaurgarrientzat

40 Laneratutako pertsona zaurgarriak



Ekintzailletza Arloa

Neg_Aukera proiektuaren baitan, **eskualdeko 5 balio kate estrategikoetan oinarritutako negozio ideiak identifikatzeko ariketa burutu da**. Lankidetzazko metodologia erabiliz —elkarriketa indibidualak eta ideazio-tailer sektorialak barne—, jarduera ekonomiko berriak sortzeko aukerak bildu dira.

KLINK egitasmoa eskualdeko ekintzailletza sustatzeko gunea **kontsolidatzen** ari da, enpresa berriei ikusgarritasuna emateaz gain, jarraipen zerbitzuak, formakuntza espezializatua eta baliabide praktikoak eskainiz.

Klink egitasmoa

9 Kapazitazio tailer antolatuak

5 Ekintzailletzaren inguruan garatutako sentsibilizazio ekintzak

8 Eskualdeko medioetan argitaratutako elkarriketak

2 Antolatutako kafe tertuliak

Aholkularitza zerbitzua

104 Zerbitzutik pasatako ekintzaileak

62 Landutako egitasmoak

29 Sortutako enpresak

37 Sortutako lanpostuak

1.1 M€ Ekintzaileek guztira eginiko inbertsioa

EKINTZAILETZA ARLOKO ARGAZKIAK



Turismo arloa

Eskualdeko eragile publiko zein pribatuen lankidetzaren bidez garatu den **Turismoko Plan Estrategikoa amaitutzat eman da**, eta 2025-2027 aldian gauzatzeko fasean sartu da.

Turismo Gunea sendotu eta finkatu da, eskualdeko garapen turistiko orekatu eta jasangarria sustatuz.

Proiektu estrategikoa

1 HIRUMA proiektu
estrategiko berria

Produktu turistikoak

4 Produktu turistikoen
artikulazioa

Turismo bulegoa

19.815 Bisitari turista Loiolako
Turismo Bulegoan

Lehiakortasun programak

11 Parte hartu duten
enpresak lehiakortasun
programetan



Merkataritza Arloa

Eskualdatzearen inguruko sentsibilizazio ekintzak gauzatu dira, eskualdeko merkatarik elkarrekin elkarlanean, tokiko merkataritza jardueren jarraipena bermatzeko eta **belaunaldi-erreleboa sustatzeko** helburuarekin.

Aldi berean, **tokiko merkataritzaren erakargarritasuna** eta **dinamismoa** indartzeko, hainbat **sustapen-kanpaina bideratu** dira merkatarik elkarrekin lankidetzan, kontsumoa bertako saltokietan bultzatuz eta **tokiko merkataritza sarearen balioa** nabarmenduz.

Elkarlan proiektuak

2

Merkataritza elkarrekin elkarlanean antolatutako merkataritza sustatzeko kanpainak

Kapazitazio tailerrak

9

Digitalizazio eta kudeaketa eremuetako tailerrak

Eskualdatzeak

4

Eskualdatze gauzatuak

7

Modu aktiboan landutako eskualdatzeak



Programa
Saltokitik
Enpresara

Saltokitik enpresara programan parte hartu duten enrpesak:



NAIENA
arropadenda

2030 Agendarekin Lerrokatzea

3.1

Iraurgi Berritzenen
ekarpena GJHei

3.2

Helburu bakoitzari
egindako ekarpena



IBren ekarpena GJHei

Iraurgi Berritzen-en 2024 urteko kudeaketa plana Nazio Batuen 2030 Agendarekin lerrokatze prozesua burutu nahi izan da, IB-ren lan-arlo desberdinek Garapen Jasangarriko Helburuei egiten dieten ekarpena aztertuz.

Emaitza nagusiak


Iraurgi Berritzen-en kudeaketa planeko proiektu eta lan-lerroak aztertu ostean, ondorioztatzen da IB-ren jardueraren bidez ondorengo Garapen Jasangarriko Helburuei egiten zaiela ekarpena nagusiki:



Gainera, era puntualagoan honako Garapen Jasangarriko Helburuei ere egiten zaie ekarpena:



3.2



2024ko kudeaketa planeko lan lerro eta proiektuak

4.1

Tokiko Garapena

4.2

Enpresa Arloa

4.3

Hezkuntza Arloa

4.4

Enplegua eta
Prestakuntza Arloa

4.5

Ekintzailetza Arloa

4.6

Turismo Arloa

4.7

Merkataritza Arloa

Tokiko Garapena

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
1 Tokiko Garapena Arloa	Eskualde ikuspegitik arlo sozioekonomikoan inguru berritzaileen politikak eta estrategiak sustatzea da, udalen arteko elkarlanaren eta lan talde teknikoaren koordinazioaren bitartez proiektu estrategikoak aztertu, definitu eta garatuz.		
2 Tokiko Garapena Gunea	Iraurgi Berritzenen parte diren eskualdeko udalen arteko elkarlana sustatu, udal ikuspegitik arlo sozioekonomikoan proiektu estrategikoak aztertu, adostu, garatu eta kudeatzeko. Horretarako, udal ordezkarien arteko bilerak sustatuz, eskualdearen bisioa amankomuna eta proiektu estrategikoak definitu eta garatzeko adostasuna lortuz..	Eskualdearen izaera	Urola Erdiko udalerrien arteko kohesioa landu, eskualde izaera eta honen garapen sozioekonomikoa oinarri izango dituen ikupsegi amankomuna sortuz
3 IB-n LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA eredua sendotu	IB-n LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA edua sendotu: Iraurgi Berritzenek helburu duen gobernantza eredua eta elkarlan publiko pribatuaren gauzapenerako erramintak, espazioak eta erabakitze organuak kudeatu. 7 Gune desberdinen arteko bisio amankomuna, elkarlana eta estrategia konpartituak adosteko kontseiluaren eta topaketen dinamikak aktibatuz.	Talentua UE 2022-27	Bailara mailan talentua lantzeko ekimena da, eragile ezberdinekin elkarlanean (enpresak, ikastetxeak, erakundeak, enplegua eta beste eragile batzuk).
		Eskualdearen Posizionamendua	Urola Erdia eskualdearen identitatea eraiki honek egun Gipuzkoa nahi EZE mailan inbertsioak erakartzeko duen posizionamendua indartuz.
		Mugikortasuna	Eskualdeko herritar nahiz eragile sozioekonomiko ezberdinek eskudra duten mugikortasun sarea hobetzea.
		Osasun Zerbitzuak	Eskualdeko osasun zerbitzuen herritarren epe labur nahiz ertaineko beharren azterketa burutu eta hauek asetzeko bitartekoak abian jartzea
		Industria Azpiegiturak	Gaur egungo nahiz etorkizuneko jarduera ekonomikoek, industria kasu, heuren garapenerako beharrezkoak dituzten azpiegitura ezberdinen egokitzapena eta garapena bermatzea.
		Kontziliazioa eta Berdintasuna	Gaur egungo nahiz etorkizuneko jarduera ekonomikoek, industria kasu, heuren garapenerako beharrezkoak dituzten azpiegitura ezberdinen egokitzapena eta garapena bermatzea.
		Kalitatezko Enplegua	Kalitatezko enpleguan oinarritutako garapen sozioekonomikoa sustatu eta generoen artean laneratze aukera parekidea bermatzea.

Tokiko Garapena

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
4 Garapen Behatokia	Informazio eta estatistika iturri ezberdinak erabiliz, eskualdeko bilakaera sozioekonomikoaren uneoroko azterketa. Besteak beste, eskualdeko lan merkatua, ehun ekonomikoa, adierazle demografiko eta ekonomikoen bilakaerari jarraipena egin. Era berean, erakundearen lan lerro eta proiektuen garapenerako beharrezkoak diren azterketak burutu nahiz udalen eskari ezberdinei erantzuna eman. "Bestalde, 2021 urtean, Agenda 2030 programari dagozkion neurgailuak lantzen hasi."	EraDIGITzen	Proiektu honen ardatza, Iraurgi Berritzen sozietate publikoaren eta harekin lankidetzan aritzen diren administrazio publikoen arteko interoperabilitatearen eta maila anitzeko datuen gobernantzaren erronkari ekitea da. Helburu nagusia beraz, administrazioen artean kalitatezko datuak modu eraginkor eta efizientean eskuratzeko eta trukatzeko, beharrezko oinarriak ezartzea da, barneko eta kanpoko hainbat erabiltzaileri informazio erabilgarria ematen dieten aktibo bihurtuz. Horri esker, erabakiak hobeto hartu ahal izango dira, eta ahalik eta gehien baliatu ahal izango dira datuak eta teknologia digitalak IBren lankidetz-ekosistemaren barruan.
5 Tokiko Jasangarritasuna	Tokiko Eremutik nola heldu Garapan Jasangarriaren helburuei, eta Tokiko Garapenetik bultzatzen ari garen hainbat ekintzekin nola lerrokatzen den aztertu, neurri helburuei erantzuna nola ematen ari garen neurtzeko lanketa eginez.	UE-ko Energia Mahaia	Eskualdeko Energia Mahaiaren koordinazioa bideratu, eta bertan erabakitzen diren proiektuak exekutatzeko behar diren errekurtsuak bideratu.

Enpresa

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
1 Enpresa Arloa	Eskualdeko enpresen lehiakortasuna, garapena eta eraldaketa sustatu, enpresen beharren arabera proiektuak garatuz, enpresa ordezkariekin elkarlanean eta lan talde teknikoa koordinatuz.		
2 Enpresa Gunea	Eskualdeko enpresa ordezkariak osaturiko elkarlan gunearen espazioa dinamizatu eta kudeatu, enpresen ikuspegitik behar amankomunen arabera proiektuak aztertu eta garatzeko.		
3 Kapazitatea	Eskualdeko enpresen lehiakortasuna kapazitatearen bitartez sustatu. Eskualdeko enpresen artean sensibilizazio eta praktika onen jardunaldiak antolatu, enpresen kudeaketa eremu desberdinetan (teknologikoa, pertsonak, produkzioa, berrikuntza kudeaketa etab.) ikasketa prozesu moduan, kudeaketa eredu berriak biderkatzeko eskualdeko enpresa artean.	Ikasiz; Pertsonen Ard. Lan Taldea	Enpresa Gunearen proposamenari erantzunez , enpresetako perfil desberdinen arabera lan taldeak egituratu eta elkarlaneko dinamika kudeatu eta dinamizatu. Pertsonaleko Arduradunek osatzen duten lan talde egitura sendotzen jarraitu eta honek egindako proposamen eta beharren arabera dinamika kudeatu.
		Ikasiz; IKT Ard. Lan Taldea	Enpresa Gunearen proposamenari erantzunez , enpresetako perfil desberdinen arabera lan taldeak egituratu eta elkarlaneko dinamika kudeatu eta dinamizatu. IKT Arduradunek osatzen duten lan talde egituratu eta honek egindako proposamen eta beharren arabera dinamika kudeatu
		Ikasiz; Ekoizpen Ard. Lan Taldea	Enpresa Gunearen proposamenari erantzunez , enpresetako perfil desberdinen arabera lan taldeak egituratu eta elkarlaneko dinamika kudeatu eta dinamizatu. Ekoizpen Arduradunek osatzen duten lan talde egituratu eta honek egindako proposamen eta beharren arabera dinamika kudeatu.

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
4 Lehiakortasuna	Behar konkretuen arabera, langileen kapacitaziora bideratutako proiektu pilotu konkretuen aplikazioa enpresetan (eginez ikastea). Interes amankomunak baina bakarkako proiektuen garapena. Bakoitzaren esperientzia besteekin elkarbanatzea ere bada proiektuaren xedea. Beharren arabera proiektu pilotuen definizio, planifikazio eta garapena.	IkasEkin: Digitalizazioa UrEraldatzen	Urola Erdiko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko eraldaketa digitala bultzatu.
		IkasEkin: Pertsonen kudeaketan eraldaketa.	Bailarako enpresa desberdinak pertsonen kudeaketako metodologia aurreratueta ahalbuntzea da. Zehazki, talentua kudeatzeko estrategia eta praktika beharrei buruzko sensibilizazioa, prestakuntza , hausnarketa eta azterketa prozesu bat egitea da helburua, honen bidez enpresek behar duten talentua erakarri, garatu eta fidelizatzeko estrategiak diseinatu eta abian jarri ahal ditzaten, negozio erronkei eta pertsonen beharrei erantzuteko..
		IkasEkin: Lanaren etorkizuna eta Zentzua	GFA ren esperimentazio proiektuaren aplikazioa eskualdeko enpresetan, lanaren zentzuaren inguruan . Enpresaren baitan lanaren sistemaren inguruan , diagnostikoa, hausnarketa kritikoa eta ekintza planaren proposamena garatuz.
		IkasEkin: Urola Zirkularra	Proiektuaren helburua Urola Erdia eskualdeko makineriaren eta ekipoen sektoreko enpresa txiki eta ertainetan Ekonomia Zirkularri lotutako aukera eta merkatu-nitxo berriak identifikatzea, baloratzea eta lehenestea, eta aukera horiek bultzatzeko Ekonomia Zirkularren banakako ekintza-plana sortzea da.
		IkasEkin: UrEKO nomizatuZ	Ekonomia Zirkularren ildoaren barruan, eta ekonomia zirkularreko etorkizuneko jarduketaren diseinu-azterketaren ekintzen barruan, eskualdeko ehun sozioekonomikoaren ingurumen-aztarnaren kalkulua aztertzea izango da, bai eta murriztapenerako neurriak identifikatzea ere, zientzia oinarrituta, bai eta enpresei balio ematea ere; horretarako, eskualdeko enpresentzako ibilbide-orri bat diseinatuko da, dagokien balio-katearen arabera.
		IkasEkin : UrolENER	Eskualdeko enpresen egungo egoera ezagutzea, energiari dagokionez, besteak beste honako gaiak landuz: Egoeraren diagnostiko energetikoa egitea, Faktura energetikoa optimizatzeko hobekuntzak proposatzea, enpresei energiaren kudeaketarako eta etengabeko hobekuntzarako baliabideak ematea.
		IkasEkin: Berrikuntza Teknologikoa - BeTEK	GFAko Ekonomiaren Garapen eta Proiektu Estrategikoen Saileko Berrikuntza Zuzendaritzaren ekimenez, proiektu pilotu bat diseinatu eta garatu da, Urola Erdiko ETEen eraldaketa teknologikoaren bidez lehiakortasuna bultzatzea helburu duena.
5 Diru Laguntzen Bitartekaritza	Enpresan lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzeko laguntzen deialdien etengabeko zaintza eta proiektuen eskaerak eta justifikazioak bideratu.	Hazinnova	Eskualdeko enpresetan antolakuntza, marketing eta merkaturatzearen inguruan, berrikuntza bultzatu.

Hezkuntza

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
1 Hezkuntza Arloa	Gaur egun eta etorkizunean gizarteak dituen erronkei aurre egiteko ingurune egokia sortzea du helburu Hezkuntza Arloa-k, honetarako ikastetxeen beharrei erantzuna emango dien proiektu konkretu eta eraldatzaileak lantzea bilatzen du. Lan arloaren jarduera, DBH eta BHI mailetara dago bideratua eta 5 oinarri nagusitan egituratzen da: Bailarako eragile sozioekonomikoekin harremanak indartu, ikasleen orientazioan lagundu, irakaskuntza metodologia berrien baitan aurrerapausoak eman eta zientzia eta teknologia berrieekin lotutako gaitasunak sustatu, nola ez hain garrantzitsuak diren gaitasun emozional edo trasbersalekin batera. Lan ildo estrategiko bat bailara osatzen duten beste eragile sozioekonomikoekin harramanak indartzea da.		
2 Hezkuntza Gunea	Ikastetxe eta hauetako zuzendarien artean elkarlanerako espazioak dinamizatzea. Behar amankomunak identifikatu elkarlan proiektuak definitu eta adostea. Etorkizunera begirako erronken iguruko hausnarketarako espazioa.		
3 Kapazitazioa	Eskualdeko ikastetxeen etengabeko kapazitazioa sustatu, ezagutzak konpartitzeko egitasmo desberdinen bitartez: sensibilizazio jardunaldiak adituekin, ikastetxeen esperientzia onen elkartrukea, ekintzara bideratutako prestakuntza, etab.	Ikasiz	Sareko ikastetxeen arteko ezagutza eta esperientzien elkartrukea eta sustatzea lan saio zehatzen bitartez.
4 IB Harremanak	Bailarako Hezkuntza eta eragile sozioekonomiko desberdinen arteko harremanak indartzea kontextu berriak sortzen joateko ikuspegi desberdinetatik: Ekintza konkretuak adostu, elkarren errealitateak hobeto ezagutu, ikasleen orientazio alternatibak lantzeko, esperimenteratzen jarraitzeko, perfil desberdineko pertsonenarteko harremanak lantzeko.	Ikastetxeak Eragileekin Saretzen	Eskualdeko ikastetxe eta eragile sozioekonomikoen artean harremanak sendotu eta lankidetzat sustatuko duten espazioen sorrera, honetarako ikastetxeetan bisitak antolatuz.

Hezkuntza

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
5 Lankidetzako Proiektuak	Hezkuntza Guneak, zuzendarien lan taldearen bitartez, 2023/24 ikasturtean eskualdeko ikastetxeek lankidetzan garatzea adostu diren proiektuak jasotzen dira	Elkarrekin Eraikitzen	Eskualdeko ikastetxeak elkarlanean landutako proiektu honek 3 helburu nagusi ditu: 1) Ikasleek ekintzailatzarako beharrezko dituzten balioak barneratu eta gatasun ezberdinak trebatzea. 2) Ikasleek eskualdeko errealitate sozioekonomikoaren berri izatea. 3) Irakasleei irakaskuntza metodologia berritzaileak landu eta aplikatzeko aukera eskaintzea.
		STEAM Urola Erdian	Ikastetxeei zientzia eta teknologiaren inguruko ezagutzen transferentzia, bakoitzaren beharretara egokitutako proiektu pilotuen exekuzioaren bitartez. Eskualdeko gaztetxoek artean zientzia eta teknologia gaitasunak lantzea du helburu. Honetarako, gaztetxoek zientzia eta teknologia arloko proiektuak lantzen dituzte ikasturtean zehar. Ikasleek metodo zientifikoan experimentatu eta oinarritzko ezagutzak barneratzea lortu nahi da. Proiektuaren bitartez, irakasleei proiektuen gidaritzan prestakuntza eskaini eta hauen aplikazioan laguntzea lortu nahi da.
		IA-Gerolan	Ikasleen orientazio akademikoa indartzea du helburu proiektuak eta ekintzak, ikastetxeko orientatzaile ezberdinekin elkarlanean adostu dira. Besteak beste, 3 ekintza azpimarra daitezke: 1) Eskualdeko errealitate sozioekonomikoaren berri emateko, orientazio mapa sortu da. 2) Orientazio beharren arabera bisitak antolatu nahi dira eskualdeko eragileengana. 3) Iraurgi Berritzaren enplegu eta orientazio zentroetako teknikarien bisitak antolatu dira ikasgeletan.
		IA-lan Ekintzaile	Eskualdeko ikastetxe ezberdinek landuko duten proiektu honek 3 helburu nagusi ditu: 1) Ikasleek ekintzaile desberdinen bizipenak gertutuk ezagutu eta beharrezko gaitasunen inguruan hausnartzea. 2) Irakasleei irakaskuntza metodologia ezberdinak aplikatzen laguntzea. 3) Eskualdean ekintzailatza jarduerari bisibilitatea eman eta hauen jardura gizarteratzea."
6 Berrikuntza Hezkuntzan	Eskuartearen ditugun proiektuei balio erantsia ezarriko dieten espazio eta eragileak identifikatu eta aukera berriak lantzea. Aliatu klabeak identifikatu eta proiektu pilotu posibleak garatzeko aukerak sortzea. Esperientziaz guneak bilatu eta sortutako ezagutza berriak geureganatzea.		

Enplegua eta Prestakuntza

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
1 Enplegu Arloa	Eskualde ikuspegitik arlo sozioekonomikoan inguru berritzaileen politikak eta estrategiak sustatzea da, udalen arteko elkarlana, eskualdeko eragile desberdin eta lan talde teknikoaren koordinazioaren bitartez proiektu estrategikoak garatuz.		
2 Enplegu Gunea	Eskualdeko enplegu eta prestakuntza ordezkariak osaturiko Urolanprest elkarlan gunea dinamizatu, eragileen ikuspegitik behar amankomunen arabera proiektuak garatzeko.	UE3 ElkarEkinez Lanean III 2022- 24	Urola Erdian gaur egun arrisku eta gizarte bazterkeria egoerak bizi dituzten pertsona helduentzat, gizarteratze-laneratzeko prestakuntza eta enplegu prozesu berriak eta eraginkorrak garatzea, eskualdeko inklusio eragileen koordinazioa eta lankidetzaren bidez, gizarte-kohesioa hobetzeko.
3 Enplegu Zentroa	Urola Erdian lan aktiboki bilatzen ari den edonori enplegua eta prestakuntzari buruz beharrezkoa duten informazio, orientazio eta aholkularitza eman, eta, eskualdeko enpresen lan eskaintzak jaso, hautagaiak aurkeztu eta laneratze tasaren jarraipena egin.		
4 Orientazio Zerbitzua	Urola Erdiko langabe edo enplegua hobetu nahian ari diren langile, eta oro har, enplegua modu aktiboan bilatzeko interesa duen edonori, arreta espezializatua eta banakakoa eman lan eta prestakuntza aukerak hobetzeko eta lana dutenen enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna lortzeko.		
5 Ikaslan	Langabetuentzat lan aukerak eskeintzen duen formakuntza eskeintza sustatu eskualdean, prestakuntza beharrak identifikatu, dagoen eskeintzara bideratu edota ikastaro berriak antolatu eragileekin elkarlanean. Bereziki emakumeen prestakuntza eta laneratze prozezu egokituak sustatzeko bideratutako ekintzak diseinatu.		

Enplegua eta Prestakuntza

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
6 Lan Munduratzeko Programak	Eskualdeko langabetu kolektibo desberdinei egokitutako programak diseinatu, kudeatu Eskualdeko langabetu kolektibo desberdinei egokitutako programak diseinatu, kudeatu eta baloratu, ahalik eta pertsona gehien lan munduratzeko.	Hazilan + OSATU Programa Taldean	Kualifikazio-maila ertain-altua duten pertsonen laneratzea eta enplegarritasuna hobetzea lortzea, haien beharretara egokitutako laguntza-zerbitzu integral baten bidez.
		Hazilan + LORPEN Programa (banakakoa)	
		EnpleGU PRESTATU Programa (taldekoa)	Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak garatzea, enplegarritasun-mailaren, ezaugarrien eta pertsonen beharren arabera, laguntza osoko zerbitzu baten bidez.Hartzaileak: Kualifikazio-maila oso baxuko eta gizarte eta lan-premiak dituzten pertsonak (prestakuntza teknikoa eta praktikak enpresan)
		Enplegu W Programa	Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak garatzea, enplegarritasun-mailaren, ezaugarrien eta pertsonen beharren arabera, laguntza osoko zerbitzu baten bidez.Hartzaileak: erregularizatu aurreko administrazio-egoeran dauden migratzaileak, hau da, lan-aurrekontratu baten zain daudenak.
		KAP kudeaketa	Eskualdeko gazteen talentoa enpresetara erakarri, enpresek dituzten gazteen profil kualifikatuen beharrak betetzeko zubi lana eginez.
7 Diru laguntzak kudeaketa	Programa ezberdinen diru laguntzak kudeatu (Lehen Aukera, Enplegu Plana, eta abar.)		

Ekintzailletza

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
1 Ekintzailletza Arloa	Arloaren baitan landu beharrezko ezinbestekoak diren zereginak jasotzea da lan lerro honen helburua. Bertan definitzen diren zereginak, zerbitzua emateko ezinbestekoak dira.		
2 Ekintzailletza Eragileen Gunea	Ekintzailletzan lanean ari garen eragileekin elkarlanean eskualdea erakargarria lortzeko prozesua dinamizatzea eta koordinatzea da lan lerro honen helburua.	IA - Merkatua	Eskualdea erakargarri egingo duten negozio ideia berrien identifikazioa.
		Giza kapitala eta kultura ekintzailletzea, Talentua	Talentu ekintzailearen inguruko esperientziak identifikatu eta gizartera helarazi.
3 Aholkularitza Zerbitzua	Ekintzailea edo talde ekintzailea negozio ideia batekin gerturatzen den momentu horretatik hasi eta kontsolidaziorarteko ibilbidean bidelagun izatea, negozioen biziraupena bermatzeko asmoz.		
4 Lehiakortasuna	Bakarkako eta enpresa txikiei zuzendatutako tendentzia eta proiektu interesgarrien identifikazioa. Bereziki fokoa egingo da, eraikuntzako gremio eta digitalizazioaren ikuspegitik.	IA - Eraikilan	Eraikuntzako gremioen lehiakortasuna eta eskualdatze prozesuak ahalbideratzeko ekintzak gauzatzea.
		IA-Digitalizazioa	Pertsona bakarreko eta enpresa txikien digitalizazioan eragin.
5 KLINK	Ekintzaileei bideratutako sustapen eta ekintza desberdinen dinamizazioa eta koordinazioa. (11.6E)	IA - Klink Bide	Ekintzaileen bidelagun izatea bere ibilbidean.
		Klink Atari	Ekintzaileei ikusgarritasuna ematea helburu duten ekintzen planifikazio, dinamizazio eta exekuzioa.
		Klink Gune	Ekintzaileek autogestionatutako gune autonomo bat sortzea.

Turismoa

LAN LERROA	HELBURUA
1 Turismo Arloa	Arloaren kudeaketa orokorra; Planifikazioa, koordinazioa, erakunde arteko harremanak gauzatu eta erraztea, dirulaguntzen kudeaketa eta gobernantzan oinarritutako eredu berrirako pausoak zehazten joatea.
2 Turismo Gunea	Turismo arloko lankidetzazko gobernantza sistema osatzen duten lan taldeen koordinazioa eta dinamizazioa
3 Proiektu bereziak	Izaera berezia duten proiektuak, bai eskualdez gaindikoak izateagatik, gertaera tenporal bati erantzuteagatik edo beste arrazoi batzuegatik, kudeatu eta garatzea.
4 Marketing turistikoa	Merkatu segmentu desberdinetara bideratutako produktu anitzeko eskaintza turistikoa garatu, sustatu eta merkaturatzea.
5 Lehiakortasun Turistikoa	Eskualdeko enpresa turistikoen lehiakortasuna hobetzera dioazen proiektuak garatu eta sustatzea.
6 Turismo Bulegoa	Eskualdeko turismo bulegoaren (Loiolako Santutegia) zerbitzua bermatzea urte osoan zehar; Bisitarien harrera, arreta eta informazio zerbitzua, produktu, baliabide eta zerbitzu turistikoen sustapena eta salmenta, eta eskualdeko jarduera turistikoaren antena lana.

Merkataritza

LAN LERROA	HELBURUA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA
1 Merkataritza Arloa	Eskualdeko merkataritza lehiakorragoa egitea, elkarteen arteko elkarlana sustatuz.		
2 Merkataritza Gunea	Eskualdeko merkataritza elkarteen artean elkarlanerako espazioak dinamizatu eta eskualdeko merkataritza lehiakorrago egiteko lehentasunen identifikazioa eta garapena.	IA - Eskualdatzea.	Eskualdatze egoeran dauden enpresak identifikatu eta bidelagun izan beraien prozesuan, itxiera ekiditeko.
		Egitasmo eta sentsibilizazio ekintzak lankidetzan	Merkataritza mahaitik lehenetsitako egitasmo eta ekintzak sustatzea, merkataritza txikiaren onuran.

